# ZIORTZA-BOLIBARKO MENDI-BIDE SAREA

PR®





Bolibar

Markina-Xemeingo eta Ziortza-Bolibarko mendi-bide sarearen bitartez herri hauetako bazterrak ezagutuko dituzu. Inguruko herriekin bidez bide dauden loturak ere aurkituko dituzu.

Bide horietan zehar, hainbat dira antzinako ohituren berri ematen diguten elementuak, hala nola: garaiak, elurzuloak eta trikuharriak.

Zatoz eta gozatu gure ondareaz natura erdi-erdian!

## PR®-BI 28

EZ

EZ

| | | | |
|---|---|---|---|
| 5,9 km | | 1 | |
| 1h 40' | | 2 | |
| 560 m | | 2 | |
| 170 m | | 2 | |

### BOLIBAR - KORTAGUREN BASERRIA
### Kortagurenetik GR 38.1ekin du lotura

Bolibarko plazatik ateratzen den ibilbide hau errekatxoaren ondotik hasten da. Paseo atseginean, Errotalderaino heltzen da, Markola errekako antzinako zerratoki hidraulikoraino, alegia. Ondoren, garai bat duen Munioz-Goikoa baserritik eta Astarloa baserritik pasatzen da bidea. Segituan Muniozguren baserrira heltzen da: bertan, gazta gozoa egiteaz gain, taberna-jatetxe zerbitzua ere ematen dute. Baserri honen ondoan, Astarloko Atxeko gailurrera igotzeko bide labur bat ere badago. Oiz mendiaren oinetan bukatzen da ibilbidea, Kortaguren baserriaren alboan. Puntu honetan, ibilbideak Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidearekin bat egiten du (GR 38.1), Bolibarreraino itzultzeko aukera emanez. Itzulbidea GR 38.1tik eginez gero, mila urte dituen Zenarruzako Kolegiatatik igarotzen da bidea. Ziortza-Bolibarren (hirigunean) ezin bisitatu gabe utzi Simón Bolívar Museoa, haren arbasoenak ziren hiru orubeetako baten alboan. Simón Bolívarren beraren omenezko monumentua ere ikus daiteke. Gainera, bisitariak badu aisialdirako gune bat hirigunearen sarreran: kirola egiteko tresna, iturria, erretegiak eta egurrezko mahai eta jarlekuekin hornitua.


Axpebekoa




www.orbela.com


Astarloako Atxa

## PR®-BI 28.1

EZ

EZ

| | | |
|---|---|---|
| 3,4 km | | |
| 1h 10' | | |
| 310 m | | |

### AXPEKO SAIHESBIDEA
### Bolibarretik Axpera

Ibilbidea, Axpera heldu aurretik, Munarriaga baserritik pasatzen da. Axpe auzotik, urrutian, Santa Eufemia baseliza antzeman daiteke, Urregarai mendiko gailurrean.


Zenarruza-Ziortza

## ZIORTZAKO SANTA MARIA KOLEGIATA

Ziortzako Santa Maria Kolegiatak 968. urtean du jatorria. Toki itxia du, eta barrualdean daude klaustroak, eliza, abadearen antzinako etxea eta kalonjeen etxeak. Aldamenean eraikin bat egokitu zuten, bake eta lasaitasun bila dabilen edozeinek ostatu hartzeko. Monasterio sarrerako arkuetako batean (arku bietan Muxikatarren, Erdi Aroko oinaztar-familia boteretsua, armarria dago grabatuta) Kolegiataren zigilua dago, atzaparretan burezurra duen arrano bat, hain zuzen ere. 1936. urtetik 1954. urtera, harresitik kanporako eraikina erromesentzako ospitalea izan zen, Konpostelako Santiagora bidean zihoazen behartsuei ostatu emateko.




**MIDE**

Ibilbideek eskatzen duten maila teknikoa eta fisikoa neurtzen duen metodoa da. Balioak 1etik 5era doaz, zailtasun txikienetik handienera.

- INGURUNEko gogortasuna
- LEKUALDATZEko zailtasuna
- IBILBIDEan orientatzeko zailtasuna
- Beharrezko ESFORTZUA

**IKURRAK**

- Natura 2000 Sareko gunea
- Gailurra
- Garaia
- Elurzuloa
- Udaletxea
- Eliza / Kolegiata
- Ostatua
- Erromesen aterpetxea
- UNESCO ondarea
- Museoa
- Kiroldegia
- Aparkalekua
- Iturria

**GOMENDIOAK**

- Ondo prestatu txangoa
- Gogoratu prismatikoak hartzea
- Utzi atakak aurkitu dituzun moduan
- Utzi bakean inguruko animaliak
- Ez hartu lorerik
- Ez bota zaborrik

ziortza - bolibar

Artibai Mendigoizale Taldea

112 SOS DEIAK